



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN LURRALDE HISTORIKOETAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU ETA FINANTZA EGOEREN AZTERKETA KONPARATIBOA, 2003” TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Historikoetako Foru Sektorre Publikoaren Aurrekontu eta Finantza Egoeren Azterketa Konparatiboa, 2003” txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

HKEEk jaulkitako txostena ez da fiskalizazio txosten bat, baizik eta dokumentu informatibo bat da, hiru foru aldundietako datuen azterketa konparatiboa egiteko bide ematen duena.

HKEEk adierazi du ondorio xeheak eskuratzeko bide emango zukeen alderaketa egin ahal izateko, beharrezkoa izango litzatekeela datuak guztiz homogeneoak izatea. Betekizun hau, ordea, ez da betetzen; izan ere, foru erakunde bakoitzaren kudeaketa egitura berezkoa, estatutuetan aurreikusiak dauden auto-antolamendurako eskumenen aribidean hartutako erabakien ondorio baita.

Nolanahi dela ere, ezaugarri honek azterketa mugatzen badu ere, ez du itxuraldatzen. Txostenean datuak berdindu egin dira, egoki iritzi zaionean, eta beste zenbaitetan, berriz, homogeneotasun eza azpimarratu dugu.

Txostenak alderaketa zabala egin du aurrekontu, presio eta ahalegin fiskal, EAeri egindako ekarpen eta zorraren gaineko datuei dagokienez.